

# Ezin gara adi egon?



IÑIGO  
MARTINEZ PEÑA  
FILOSOFOA

**Z**ure arreta harrapatu nahiko nuke, irakurle; artikulua dastatzeko gogoia piztu. Ezinezko helburua? Egun, irakurketaren bidez norbaiten arreta harrapatzea gero eta zailagoa omen da. Irakurtzea ez omen dator bat egungo estimulazioaren intentsitate eta abiadurarekin; ez omen du bat egiten irudi, bideo, albiste eta iragarkien *tsunami*arekin, *zapping* etengabearekin... Hala al da? Sarritan entzuten dira arretaren krisiari buruzko aipamenak. Literatura edota filosofiako hainbat irakasle lagunek, besteak beste, testu luzeen irakurketa gero eta zailagoa egiten zaiela aipatzen didate. Errendimendurako exigentzia hipermodernoak, ordea, ez du horretarako abagunerik ematen: gero eta gauza gehiago egin behar dira gero eta epe laburragoan. *Multitasking*aren leloa. Egun, bada gelditzeko eta itxaroteko zailtasun berezia, egonezin handia. Ulermenak behar duen tartea hartzea gero eta jasanezinagoa egiten zaigu: iritzia arin eta konpulsiboki emateko beharra daukagu. Baina bizitzako hainbat kontutan, itxarotea baino ez dago: egunsentia eta ilunabarra ikusteko, seme-alaba baten jaiotzarako... Itxarotea baino ez.

Egungo gizartean arreta mantentzeko ditugun zailtasunak aintzat hartu-

ta, analisi interesgarria egiten du Biffo Berardik. Haren ustez, kapitalismo digitalak ez du gure arretarik lortzen, ez dagoelako gure desirarekin lotuta: ez dauka arretarekin zerikusirik, etengabeko estimulazioarekin baizik. Ustezko arreta merkantzia huts bilakatu da Google, Facebook edota Amazonen moduko enpresentzat, eta gure datuak lortzeko ekonomia dugu gudu-zelai: horixe da kapitalismo digitalaren helburu nagusia.

*Aisialdiko proletario* bilakatu gara; datuak eskuratzeko irrikan dauden enpresentzako langileak gara. Gure denbora librean eskuratutakoa ustiatzen dute, beste garai batzuetan urrearekin, ikatza-rekin, gasarekin edo petrolioarekin egiten zuten moduan. Datuen estraktibismoa erabakigarria da egungo bizimodua ulertzeko. Horretaz hitz egiten du Yves Cittonek *Arretaren ekologia* liburuan. Kapitalismo digitalari ere aurre egiteko, arreta beste nonbait jartzen ahalegindu beharko genuke? Arretaren ikuspegi soziala aztertzen du aipatutako idazleak, eta arretaren ekonomiaz hitz egin beharrean, arreta ekologia gisa ulertzea aldarrikatzen du: datuak ustiatu beharrean, elkar zaintzea. Arreta, finean, gure artean eta munduarekin erlazionatzeko modu bat da. ●

## Umorea



LEIRE NARBAIZA  
ARIZMENDI  
IRAKASLEA

**A**stean galdetu didate ea nolakoak ziren idazten nituen artikulua, eta ea umoretsuak ziren. Ezetz esan nion galdetzaileari, nahiko nukeela, baina ezin, inguruan gertatzen dena ikusita.

Uste dut umoretsua naizela normalean, baina ez da erraza ezer umorez idaztea munduan dauden gatazka guztiak ikusita. Gaitza da amorru eta egonezinari eustea. Saihetsezina da salaketa eta tristura teklatuaren zirrikietatik ateratzea, eta letra hauetan agertzea.

Halere, iruditzen zait umorea ezinbestekoa zaigula bizirauteko, aurrera egiteko. Nire kasuan hala da, behintzat.

Barrea eta irribarrea babeslekua zaizkit, nahitaezkoak egunerokoari aurre egiteko.

Egia da ez direla sasoi egokienak irrietarako. Esperantza bako etorkizuna marrazten zaigun aroa da bizi duguna, deskalabrua nonahi. Gainera, itxaropena apropos kendu digutela begitantzen zait, pasibotasunean murgil, bertan goxo geratu, eta paralisia jola, jarki ez gaitzen.

Beraz, barrea eta irribarrea desesperantzaren kontrako arma bihurtu behar genituzke, benetako esfortzua eginda, konbentzimendu osoa dudalako umorea izan litekeela *txisparik* iraultzaileena. ●